

MAITASUNA

Emozioen eraikuntza soziala

Egilea: Amaia Agirre Miguélez

Arloa: Soziologia

www.gaiak.net

2014/01/20

Azkenaldian, gizarte zientzien arlotik ikertzen den gaia da maitasuna eta horrekin bat datozen sentimenduak. Zehazki, maitasunaren erro kulturalak ikertzen dira, agerian uzteko maitatzeko moduak eta, zentzu orokorrago batean, emozioak, eraikuntza kulturalak direla eta modu desberdinetan bizi direla garaia eta esparru geografikoaren arabera. Beraz, maitatzeko eta maitasun hori bizitzeko, adierazteko eta garatzeko modu desberdinak daude munduan barrena.

Mendebaldeko gizarteetan emozioen hierarkizazioaren bitartez (sentimendu batzuk gorai patzen dira; beste batzuk, ordea, ezkutatu eta erreprimitzen dira) bi dira gailentzen diren maitasun motak. Alde batetik, bikote harremanak eta, bestetik, amen maitasuna bere hurrekiko.

Bikote harremanei dagokienez, maitasun erromantiko gisa definitua izan dena, XIX. mendean, Erromantizismoarekin bat, indarra hartzen joan zen eta gaur egungo mendebaldeko gizarteetako erlazio afektibo inportanteenetariko bilakatu da. Horrela, egungo gizarteetan mitifikatutako harreman hori gizartea antolatzeke era naturalizat hartzen da eta bizitzeko erdigunean kokatu ohi den harremana da. Hala ere, maitasun erromantikoaren ideologia hori uste dena baina berriagoa da. Esan bezala, XIX. mendearekin bat agertu zen, baina XX. mendera arte ez zen ezarri klase sozial guztietan. Aurreko mendeetan, bestelako arrazoiengatik elkartzen zen jendea bikote harremanetan ezkontzaren bidez: bizirik irauteko, ondasunak handitzeko edo mantentzeko, klase altuetan aliantza politikoak hitzartzeko, haurrak edukitzeko... Egun, aldiz, adin batetik aurrera harreman sozialak antolatzeke instituzio bilakatu da bikotea, eta aurreko mendeetan ez bezala, maitasun erromantikoaren ideian oinarritzen da. Gizarteak

berak, nolabait, jendea horrelako harremanak sortzera bultzatzen du (esaterako, etxeen distribuzio ohikoenak gela handiena bikotearentzat erreserbatzen du eta besteak haurrentzat. Beste adibide bat da *single*-entzat antolatzen den aisialdiko aukera guztia, bikoterik ez edukitzea “gabezia”tzat hartzen duena).

Gure gizartean gorai patzen den beste maitasun mota amek (ez horrela, aitek) bere haurrengatik sentitzen duten maitasuna da, zehazki, hainbat autorek egungo mendebaldeko gizarteetan praktikatzen den amatasuna, amatasun intentsiboa izendatu dute. Hainbat dira maitasun sakon eta instintiboaren irakurketa kritikoa egiten duten lanek, batik bat antropologiatik, soziologiatik eta historiatik. Lan horiek agerian utzi dute, esaterako, amen dedikazioa ez dela berdina izan mendeetan zehar eta, beraz, amatasunarekin bat datozen sentimenduak ez direla unibertsalak eta naturalak, baizik eta aldakorak eta, beraz, ikasiak. Esaterako, Europan, XVI. mendetik XIX. mendera arte ohiko praktika zen gurasoek alabak eta semeak umezurztegietan uztea, non bizirik irautea bermaturik ez zegoen. Gaur egungo ikuspegitik arraro iruditzen zaigun praktika bada ere, oso zabaldua zegoen eta Rousseau pentsalariak berak (mutikioen -ez neskatoen- heziketaz eta baldintza sozialez teorizatu zuen lehenengoetarikoa) bere haurrak horrelako instituzio batean utzi zituen.

Amatasuna (eta aitatasuna, nahiz eta askoz gutxiago gorai patua, normatibizatua, ikertua eta praktikatua izan) beti ez dela berdina izan erakusten digun beste adibide bat, Israelgo hasierako Kibutzzen eredia da. Bertan, umeak elkarrekin bizi ziren “umeen eraikinean” beraien gurasoengandik banandurik; egunean zehar umeak eskolan zeuden eta gauetan umeak zaintzeko gurasoak txandakatzen ziren. Gaur egun, amatasunarekin zuzenean erlazionatzen eta aldarrikatzen den beste praktika bat edoskitzea da, baina ez du beti garrantzi berdina eduki eta ez da beti amen eskuetan egon. Europan, mende askotan zehar, amek titia ematea ez zen ohikoena: klase altuetan inudeak kontratatzen ziren eta beheko klaseetan beste emakume bati uzten zitzaizkion hainbat ume amek lan egin behar baitzuten.

Amatasunaren erro kulturalak aztertzen dituzten lanen artean, ikerketa antropologiko garrantzitsuena Margaret Mead-ek burututakoa da. Amatasunaren

jarrera unibertsalak eta amatasun instintua kolokan jarri zuen Ginea Berrian eginiko ikerketen bidez. Zehazki, Mundugumor herriarentzat haurrak edukitzea ezbehartzat hartua zen eta euren zaintza neskatila handiagoen eskuetan uzten zen, gurasoak ez baitziren horretaz arduratzen. Umeak euren kabuz bizirik iraun arte, oztopo gisa kontsideratuak ziren gizarte horretan.

Zoom in

. Polimaitasuna praktikatzen dutenek maitasun harremanak ez dituzte bikote harremanetara mugatzen eta maitasun harreman alternatiboak garatzen dituzte. Horrela, hirukoteak, laukoteak edo pertsona gehiagorekin maitasun harremanak garatzen dituzte. Euren burua gaitzat hartzen dute emozionalki harreman bakarra baino gehiago edukitzeko.

. Platonek planteatzen zuen gizarte idealean, soldadu izango ziren umeak hezterako orduan, ahalik eta gehien mugatu behar zen familiaren afektibitatea. Horretarako, beste gauzen artean, edoskitzea zuloan horma batetik izan behar zen, titia hortik ateratzeko ikusi gabe nor edoskitzen zen.

. *Death Without Weeping: The Violence of Everyday Life in Brazil* (*Negarrik gabeko heriotza: Indarkeria Brasilen eguneroko bizitzan*) izenarekin 1993an plazaratu zen Nancy Scheper-Hughes antropologoaren ikerketak erakusten du umeekiko sentimenduak ez direla berdinak gizarte guztietan. Zehazki, Brasilgo ipar-ekialdeko komunitate txiroetan, ume txikiak ez dituzte pertsonatzat hartzen eta haien heriotza ez da ezbehartzat jotzen, oso ohikoak baitira.